

ZIRTAK  
Angel Erro

IDAZLEA

## Bakearen soinu banda

**J**ohn Cageren *4' 33"* piezan interpretatzaile batek partitura ireki baten aurrean ez du pianoa jotzen lau minutu eta hogeita hamahiru segundoz. Beste tresnetarako bertsoiak badaude. Orkestrarako ere bai. Zoragarria da kiribilean entzuteko, lehendabiziko mugimendua, bereziki, nire ustez hoberena, bular-estugarria, esaterako, isilezko konpas lasai batzuen ostean tronpetak sartzen ez direnean.

**JENDEAK** galdetuko du: "Zer egiten ari zinen 2011ko urriaren 20an, 19:00etan?". "Ba, agiria noiz aterako zain, (ahaztuko zaigu?) iragarrita zegoen-eta". Ordenagailuaren dirdaiaz argiztaturiko aurpegien lerroak ez du anekdota bilduma zabalerako ematen, ezta "ebem, ebem", epika askotarako ere. Galdera, lehenbizikoz, biharamunean egin zidaten, Iruñeko irrati bateko kolaboratzaile guztioi bezala. Bide batez eskatu ziguten une historikoa ilustratzeko musika bat aukeratzeko, hor zeukatenen artean, bestela saiatuko zirela aurkitzen.

**MUSIKAREN** eragin baltsamikoa aipatzen da. Uxue Apaolazak Gregorio Allegriren *Miserere*aren CDA entzunik, sms batez mezutu zidan bronkodilatadorea zela. Ama zenaren hil bezperaz oroitu nintzen. Berak arnasa ezin harturik, erizainei deitu behar izan nien. Aztoramendu erdian zerbait esan nahi zuen; ez ziotenez ulertzen, utzi zidaten hurbiltzen. "*Pomme música, Ángel Mari, que me abogo*". Ordu batzuk lehenago *Radio Clásica* aditzen egona nintzen, bera lo zegoen bitartean.

**TOKI** gehiagotan ikusi dut ariketa bera, ETaren amaierarako abesti bat proposatzearena. Kultur eremuan hitza bataila guztiak galtzen doan honetan (irudien kontra, sentimenduen kontra, musikaren kontra), nago ez ote dugun gordeleku eroso bat soinuaren esanezinean bilatu, mundu paralelo horretan, Ruper Ordorikak definitu bezala.



JOSU SANTESTEBAN

**JULIAN** Barnesen *Vigilance* ipuinean protagonistak eskaileretatik behera botatzen du kontzertuan eztulka ibilitako aldamera, musikak birikei dakarkien ona aintzat hartu eta errukitu gabe. Yehudi Menuhin biolinista eta orkestra zuzendariak esan ohi zuen jendea bere kontzertuetara joaten zela pneumologorenera joan aurretik azken neurri moduan.

**IRRATITIK** irtenda, berehala damutu nintzen egindako hautaketa musikal presazkoaz, ETaren armak uzteko erabakia "laguntzen" egokiagoak izan zitezkeen bi konposizio bururatuta (beranduegi): John Cageren *4' 33"* edo Emanuel Chválnaren zerbait. Iraganeko hutsak zuzentzeko, aukera galduak zuzitzeko, geure burua edertzeko, idatzi ohi dugu, hau, esaterako (beranduegi).

**EUSKAL HERRIA** "*ce petit peuple qui chante au pied des Pyrénées*" definitu zuen Voltairek. "*Autour d'une table*", mahai baten inguruan, esan izan balu, erretratu biribila. Afalostean kantuan aritzeko ohitura ez dut batere maite. Solasaldia eteten, saihesten du. Dena den, elkarte gastronomikoetan politikaz hitz egitea debedu da. Horrela, inori ez zaio mokadua kontrako eztatritik joaten. Harritzen nauena da euskal sukaldariak garai berriaren zaporea hobekien adierazten duen plater bat oraindik proposatu ez izana. Bidean da seguruenik *errelato* goxo hori.

**EMANUEL CHVÁLA** txekiarrak konposatutako lan guztien artean batek jarraitzen du jokatu gabea, agian ez delako batere baltsamikoa: *Concerto per tosse e orchestra*. Kontzertua eztul eta orkestrarako. Gliereren Kontzertua koloratura eta orkestrarako atseginarenean ifrentzua izan liteke. Exijentzia handikoa da.

*Bel cantoa* aspaldian utzitako kantari zahar ajetsua, arnabide gaixotikoa eskatzen du, partiturak zehaztutako hats bahitua, arnasestuak, eztatari garbitzeak, eztul bitonala eta, hondarrean, hil korroka emango dituen. ■



irudia:  
Antton Olariaga

